

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Eiguren Mendiguren Jose Baños

*Lekeitio,
Bizkaia
(1927-2010)*

Aurkibidea



Biografia



1927an jaio zen Talan, bainuak zeuden tokian. Gurasoak ere lekeitiarrak ziren eta bere ama arduratzen zen bainuen mantenuaz. Bere aititak jarri zituen martxan Lekeitioko lehen bainuak, eta negozioaren nondik norako guztiak ondo gogoratzen zituen. Gerra ostean, sendagaiak ugaritzearekin batera, indarra galtzen joan zen eta azkenean 1950. urtean zarratu zituzten. Bere aita Batzokiko atezaina izan zen, eta kartzelan eta langile-batailoietan egon zen urte luzez heriotza-zigorretik indultatu zuten arte. Bere amamak Santi taberna izan zuen eta bere amak ere han egin zuen lan. Bilbon ikasi zuen, Arte eta Lanbideak, eta orduz geroztik arotz lanetan ibili izan zen. Elizako abesbatzako kide izan zen 40 urtez. 5 seme-alaben aita.

Zintak

LEK-014

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Eiguren, Josu - Lejardi Plaza, Jon - Marquez Luis, Beatriz - Koskorrotza Madarieta, Ane - Bilbao Larrea, Patxi - Gabikagogeaskoa Korta, Estibaliz - Kobeaga Sesma, Ibon - Petralanda Prados, Oihane

LEK-015

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-08
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Bainuen sorrera eta funtzionamendua

- **Erref:** LEK-014/003
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Bere aitzak jarri zituen Lekeitioko bainuak martxan. Bonba bat erabiliz ateratzen zuten itsasoko ura depositu handi batera, lehenengo gasolinaz eta gerora, elektrizitatez. Depositu horretatik beste depositu batera pasatzen zen ura presioa eginez, eta presio horrekin bertan egoten zen galdara handi batean berotzen zen ura. Azkenik, bainuetara heltzen zen ur beroa, bost bainu zeuden. Askok iododun goroldioa botatzen zuten kolorea emateko. Hondarrezko erlojua erabiltzen zen denbora kontrolatzeko.

Transkripzioa

Hori aittittek ein eban hori. Hori dao bonba bat dao itsasotik ata eutsen bonba bateaz "Club de pesca" don tokidxan, han eon zan txabolatxu bat, ta bonba bat egon zan han, handik eta oin taillerra daon tokira arte ataten zan bonba batek ataten eban ura beste depositto handi batera. Baia lelengotan ibilli zan horreaz gasoliñiaz ta gero etor zan elektrizistia, eletrizidadeko motorra. Baiña handik behetik ataten zan ronpeolasetik sotano batera, han euen depositto bat, ta hara. Ta handik deposittotik beste depositto batera, altura batera, atzeko hori indder hartzeko, pasateko beste beste poste batera. Ta kaldera bat egon zan berotzeko, ura berotuteko kaldera bat, ta harexeaz presiñoiagaz berotu ha ura ta gero ha ura pasaten zan baiñuta. Egoten zin bost baiñu, bost bañera, bost bañera, ta gero ohiek, handik urtetan dabenien sartzeko ohian barruan hori. Ta gero askok eitten eben horreaz, iodo, iodo, hori "¿cómo se llama este?" honek, goroldidxa goroldidxa, harek eukitten eban iodua eukinak, hareaz eitten eben baiñutara bota ta kolorie hartzen eban harek iodunak, "yodo de..." baiñutara boaten zan iodua. Ta harek eitten ban tintie emon, ta hareaz hartzen zin baiñuak. Ipintzen dxakon ha kantidadie denpori eitteko, holako honek "reloj de cristal", "reloj de arena", harek ipintzen zirian, hamalau hamabost, ordu laurden ordu erdikua ta harek "reloj de arena" ikusten zan eta amaittu zanian da! altxa.

2. Goroldio motak

- **Erref:** LEK-014/004
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Natura » Flora

Laburpena:

Bi goroldio mota daude, iododunak erabili behar dira, tintedunak; besteek ez dute balio. Tintedunak olatu-horma (rompeolas) inguruan batzen zituen. Olatu-horman ez zegoenean, Quinto kilometrora joan behar izaten zuen bizikletaz.

Transkripzioa

- Eta algak-eta, bueno goroldidxo-edo, tipo diferentiek ibiltzen zien?
- Alga tipo bat dao, bi, batek ez deu balidxo. Hamen egoten da, hondarrian egoten dana, honek horrek ez deuke ez deuke tinterik horrek, iodo bestiek bestiek izen biher deue, barruen daukona iodua. Guk hartzen genduan rompeolasen egoten zan behian, nik hartzen nabazan handik, ta han ez euenian han Quinto kilometrora, bizikletan hartunda.
- Ba zer otzaran ekarten zendun-edo?
- Otzaran, otzaran, bai.

3. Baserritarrak joaten ziren bainuetara

- **Erref:** LEK-014/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Batez ere baserritarrak joaten ziren bainuetara, erreuma eta gerriko arazoak-eta zituztelako; arrantzaleek ez zuten minik izaten.

Transkripzioa

- Ta nok ibiltzen bazen baiñuek ba? Baiñuetara nor joaten zan?
- Gehidxenian baserriko jentia. Gerritik-eta dabizenak txarto, erreuma erreumiantzako zan gehidxena.
- Eta hemen portuko jentia-eta.
- Ez, portuko jentia ez. Gehidxenak baserritarrak zin.
- Eta zerba bakarrik baserritarrak?
- Bestik gerriko miñak-eta eukitzen ebezan harek negu guztidzan atxurregaz ibillita ba.
- Arrantzaliek-eta be eukiko biezan gerriko miñek.
- Ez, arrantzaliek ardauagaz pasaten eben.
- A bai? ta zemat kobretan jakien?
- A hori ez dakitz zemat kobretan zan, ze kantidadia. Gauza gitxidxa izengo zan, baia ez dakitz ze kantidade. Orduen dirurik be ez zeuan-ta.

4. Bainuak mare bizietan; batez ere gizonezkoak

- **Erref:** LEK-014/006
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Iraila eta urria inguruan egoten ziren bainuak, mare biziak zeudenean. Olatuak indarra izan behar zuen; eta, ondorioz urak ere bai. Trapu zahar bat janzen zuten, sekula ez biluzik. Bezero gehienak gizonezkoak izaten ziren. Medikuek emandako paper bat izaten zuten osasunerako ona zela ziurtatzen zuena.

Transkripzioa

- Zenbatero-zenbatero joaten zan ba persona bakotza?
- Hori izeten zan oktubrian, oktubre, setienbre-oktubre egoten zin baiñuek horrek, ura daon bizidxen daonin, mare bizidxak dagozenian, ze esaten eben apurtzeko, olatuk apurtzeko indder gehidxo daukola horrek ur horrek bestik mari bizidxakin, horrek indder gehidxo eukola urak ta han eitten ebezen, egoten zan setienbre-oktubre zan bainutzia, gero ez zan egoten.
- Eta zelan, paparroia-edo ibiltzen eben-edo? Traje de baiñua-edo ibiltzen eben-edo?
- Bai traje de baiñua, trapu zahar bat.
- Trapu zahar bat. Ta billuzik ez?
- Billuzik ez.
- Ez? Eta andrak eta gidxonak eta umiek-eta danak bardin?
- Umerik ez zan egoten. Ez, andrak, gidxonak gehixo e, gidxonak gehidxenak. Bakizu, baserriko jentie zan erreumiagaitzik-eta zera. Gero egon zan papel bat medikuena, "el autorizado", medikuk baimena emonda, ona dala ipintzen eban.

5. Bi bainuetxe egon ziren

- **Erref:** LEK-014/007
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Bezero gehienak baserritarrak zirenez, gehienak kanpokoak ziren, inguruko herrietakoak: Mendata, Munitibar... Beste bainuetxe bat ere egon zen Mendieta ontziolan, baina haiek errekatik hartzen zuten ura eta ez zuen presiorik; hori dela-eta, beraiena zabaltzerakoan bestea zarratu egin zuten. Banakako bainerak egoten ziren eta etxeko zerbitzua ematen zuten: toallak, oheak...

Transkripzioa

- Eta Lekitto kanpotik be etorten zan jentie-edo...
- Baserriko bueltie: Mendata, honek Munittibar ta hortik hortik bueltakua, horko bueltakua. Gehidxena kanpoku zan e!
- Orduen famie euki eban edo ezeune zan.
- Bai, bai. Ze hamen egon zan beste bat "Astilleros de Mendieta"n hortxe egon zan, beste lelengo hori baiñuetxia. Baiña horrek ez eukan, ure hartzen eban horrek erreidxotik ta ordun ez eukan presiñorik, ta hori ipiñi zanian ha zarratu ein zan, ze hau zan ur bizidxa, ur bizidxa "de rompeolas". Handik hartzen zan ta ni hara bajatzen nintzan ta ipiñi martxan bonbia

martxan ipiñi, ta lantzien olatu handi bat goittik etorten zan.

- Ta ze egoten zien bañerak edo zelan? Zelakoa izeten zan hori barrue?
- Bañerak han etxien. Etxien bañerak, bañerak ontxe moduko antzekuak.
- Baia holan personak banan-naban baiñetako modukoak edo...?
- Bai banan-banan.
- Ta gero ze zerbitzu gehidxau emoten zenduen holan, baiñetien aparte... gero toallak eta hori zuek izten zenduezan edo...
- Bai bai etxequak, etxequak danak. Batzuk sikatu eitten zirian beste batzuk ohian sartu be bai, egoten zin ohia [...] lo dauenian haize berua botateko.
- Han geratzen zienak trankil-edo diñozu?
- Batzuk baiñuaz ohia nahi izaten eben izerdidxa botateko, handik urten eta bero dauelez han, urteten zendunian berotatik, ba sartu ohian ta ordu laurden edo ordu erdi-edo.
- Izerdidxa botateko.
- Bai.

6. Ura berotzen

- **Erref:** LEK-014/009
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Bere ama ibiltzen zen mantenu-lanetan beharrean eta Josek goroldioak batzen eta ura berotzen laguntzen zion. Ura galdara bateko baporearekin eta uraren presioarekin berotzen zuten. Galdara arotzeria azpiko tailerrean zegoen. Jose bera arotza zen berez, bainuetatik gehigarri bat ateratzen zuten.

Transkripzioa

- Ta han mantenimientoan-eta ze ibiltzen zan persona bakarra biherrian?
- Gure ama-eta, holan berotuteko eta eukitten nebazan kalderia biztu eta kalderia ura berotu eta hori. Baiña ipintzeko gauzak-eta ama zan ha.
- Alaba: Baiña zuen aitta orduan kartzelan euan.
- Bueno bai kartzelan.
- Alaba: Orduan zeuk laguntzen eutsazun amari, ezta?
- Bai, neuk bakarrik.
- Alaba: Berak eitten eban horixe, baiñuk-eta martxan ipiñi eta zuk eitten zendun oraldidxen bueltia eta bonbi ipiñi martxan.
- Bonbia ipiñi martxan eta ura berotu.
- Alaba: Eta ura berotu,. Ura berotu zelan zan?
- Baporaz kaldera bat eta hareri presiñoiaz ura bero eitten gendun.
- Alaba: Ta biztu nundik eitten zenduan kalderia?
- Bertara junda.
- Alaba: Bertan ronpeolas azpidxan?
- Ez, ez, ez, hori egon zan taillerrian.
- Alaba: Taillerrian hori. Taillerra dao etxe horren azpidxan. Arotzeridxa hori, gaur egun arotzeridxa dana.
- Ze izatez zu arotza zara ezta, Jose?
- Bai.
- Hori zan ba konplemento bat, ekonomikoki konplemento bat, ezta

baiñuana?

- Baiñu zan denbora gitxireko euki eban, setienbre-oktubre horixe, ez dao gehidxau.
- Alaba: Baiñuk egon zirin denporan martxan arotzeridxa ez euan martxan.
- Bai, arotzeridxa bertan. Zati baten zan ha baiñuna ta bestia. Han arotzeridxa gitxi euazan, orduen ez euan gaurko martxarik, [...] egongo die batzuk eta holakoxe arotzeridxarik ez zan biharrik ordun denporan.

7. Zapatuetarako dutxak

- **Erref:** LEK-014/010
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Garbitasunerako ez zuten ezer berezirik erabiltzen. Zapatuetan nahi zuenarentzat, edonorentzat, ur hotzdun dutxa-zerbitzua izaten zuten, etxeetan ez baitzen dutxarik egoten. Goroldioa eskuz batzen zuten. Iododun goroldioak ziren batu beharrekoak.

Transkripzioa

- Baiñuek-eta garbitzeko-eta zoker espeziala ibiltzen zenduen edo... ze jentien izerdixekaz-eta...
- Ez dot, orduan ez zan osea.
- Horrek beste jente dabillen lekuen-eta.
- Bai ez dakitz ze mejunke botaten otsen baiña... Ta gero egoten zirian zapatuen dutxak egoten zirian, dutxak kanpokuentzako, ur gazizagaz e! Nahi ebenak kanpoko jentiak, orduan ez euanez hamen etxitan dutxarik-eta, ba zapatutan egoten zan dutxia, pagetan zan zoker baia ura, ur hotzaz e!
- Ta horra ya edonor etorten zan.
- Bai.
- Bakarrik baserritarrak ez?
- Ez. Nahi dabenak. Garbi garbittuteko.
- Alaba: Mariñeruk-eta be bai.
- Mariñeruk ez dira izan sekula.
- Ur gazittan.
- Eta lehen esan dozu hori oraldidxe-eta batzen joaten ziñela, eta ze batzen zenduen eskuekaz edo zelan batzen zenduen?
- Eskuegaz, eskuegaz. [...] honek e honek deukonak hori oroldidxori, bata, oroldidxo tipo bi doz: bata iodo daukona, ha zan nik hartzen nebana; bestik ez dau balidxo.
- Alaba: Ta ze koloreku da hori iodo daukona, berdia edo gorrizkia?
- Berdi gorrizka paraten da. Honako kolore bat.
- Alaba: Ta harek haunako, badaoz batzuk daukena zelan da? inddiarra lez, horrek ez?
- Horrek ez.
- Alaba: Lisuk zirian?
- Lisuk, barrutik iodo euki ben bakarrik harek.

8. Bainuak zabaltzeko ideia

- **Erref:** LEK-014/012
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Bere aitona eraikuntza-lanetan ibiltzen zen eta ideia onak izaten zituela dio, beste bainuen funtzionamendua ikusita bururatu zitzaion bainuak martxan jartzea. "Club de pesca" azpian zegoen bonba, eta tailerreko depositura lurperatutako hodi batetik eramaten zuten ura. Joseren aititak egin zituen eraikuntza-lan guztiak.</p>

Transkripzioa

- Zure aitxitek bakixu zer dala ta jarri eban hori martxan edo nundik etorri jakon ideie-edo?
- Ba ideia etorri jakona zan ba, bera zan bastante konstruktoria ta eitten ebazan ba etxe, egurrezko etxiak eitten ebazan harek, ta bera be bastante intelijentia. Ta ikusi eban bestia konpetentzidxa orduan, bestiari... Mendietari ba hau ipini eben, baiña handik eindda. Han "Club de pesca" daon tokidxan onduan bonbia eon zan, "club de pesca" bakixu nun daon, ezta?. Hantxe bonba bat, ta gero tallerrera ta altzateko, tubua, hamar zortziko tubua-edo, behetik gora, depositto batera, handik kamiñuan zihar pasateko lain.
- Alaba: Bide azpitxik? Bide azpitxik edo bistan euan tubua?
- Ez ez, enterrata.
- Alaba: Enterrata bide azpitxik.
- Auntxe be eongo da bertan tubua.
- Alaba: Hori ba.
- Bide erdidxan.
- Bueno kendu zirian danak.
- Ta hori dana zure aitxitek altza eban? Zure aitxitek altza eban hori dana?
- Bai.
- Konstruidu eta berak
- Bai dana, ta gero etxia be baiñu-etxia be berak ein eban. Ontxe daon modura, ontxe daon modura, edifizidxua ontxe tipuan dao.
- Alaba: Baiña mirador barik.
- Bai miradorerik ez euan, baiña pisua be bateko pisua gero.
- Alaba: Bai altura batekua.

9. Botikek ekarri zuten bainuen gainbehera

- **Erref:** LEK-014/014
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>Gerraostean bainuen gainbehera etorri zen. Josek 16-17 urte zituela zarratu zituzten bainuak. Botikak ugaritu ziren heinean beherakada igarri zuten. Hala ere, sasoi hartan, jendeak etxean dutxa barik jarraitzen zuen. Ondarroan ere bazegoen bainuetxe bat, baina hango urek ez zuten beraienak zuten beste indarrik.</p>

Transkripzioa

- Ze traiektori euki eban edo zuk zelan ikusi zenduan?
- Nik dutxatia ordun gerria etorri zan gero, eta gerratik eon zan, ta gero azkanian idxa galdu ein zan. Noiz arte? Nik ekuiko neban orduan hamasei urte edo hamazazpi urte. Ta orduan bai martxan euan, baiña geruo ta gitxiao, gero honek botikak eta be gauzok kendu ein eben. Botikak eta euren indeziñoiak-eta.
- Orduan medikuntzia aurrera juan zan ta zuek negoziidua...
- Etxe partikularretara be ura geruago ta gehidxao, eta dutxak, baiñuak edo etxitan hasiko ziran.
- Etxitan bueno, etxeetan hamen gitxi, hamen ezta eon dutxarik, e, herridxan, e, Zapatutan egoten zan dutxia, kanpotarrentzako libre, baiña "agua sal, aguas dulce" Batzu juten ziran, "hombre"... ahal dabenak haxe be, dutxia hartzeko bertan. Ez euan dutxarik hamen ordun.
- Alaba: Txaboi barik? Ur hutsa, txabo barik?
- Bai txabo barik.
- Ordun esan dozu gerraostian hondiño funtzionatzen eban ta, ondo edo?
- Gutxi.
- Alaba: Hori ze ixan zan, gerri etorri zan ta ia, hor gelditxu zan "no"? Ta gerraostian "nada".
- Bai badiñotsut ba medikamentukin kendu eben, eon zan autorizaziñoren bat mediko baten, ona zirila ta ez dakitx /eztaitx/. Orduan baiñu etxiak "eran", Ondarrun be eon zan bat. Baiña urak ziran makalak harek. Erreidxoko urak ez euen. indxarrik, ta gurin eon ziranak, ur bizidxak dira, ganera ordun "septiembre, octubre" bizidxenak da.

10. Txalopetxeak; Santi taberna

- **Erref:** LEK-014/018
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:22:06. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Ardoa zahagietan gordetzen zuten. Enbarkazio bakoitzak bere taberna zuen, "txalopetxia", eta ardo kuartilu bat edanda konformatu behar ziren, ez zegoen gehiagorik-eta. Santi lehenengo taberna zen, gerora bihurtu zen jatetxe.</p>

Transkripzioa

- Ta gero harek e lehenengo ardaua nun gordeten zan? Horrek.
- Zahagidxa. Zahagidxa, "pellejo".
- Halako handidxak ziran ?

- Bai, bueno.
- Ta jentie ardaue erosten joaten zanian ze joaten zan bakotxa bere botelliaz, edo zelan ixaten zan hori?
- Orduan lehengo lehen zirian txalupa txikiñak izaten zirian, enbarkaziño bakoitxak eukitxen eben bere tabernia. Ta hantxe kuartillo bat, itxasora juten zirian kuartiloko bat. Ta urteten baeben kuartiloko bat neguan. Hantxe haxe kuartillua edan ta bigarrenik ezin edan, ez euan ta.
- Ta bera Santi lelengo hasi zan taberna lantxerik ta gero restaurantera bihurtu zan ezta?
- Restaurante bai.
- Gero gitxika-gitxika...

11. Maisu erdaldunak

- **Erref:** LEK-014/020
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:23:17. **Bukatu:** 00:25:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra sasoian bederatzi urte zituen Josek. Garai hartan ez zuten eskolarik. Gerra aurretik joan zen eskolara; irakasle guztiak ziren erdaldunak eta beraiek ez zekiten erdararik. Bere lagun batekin izandako anekdota bat kontatzen du. Zigorak.</p>

Transkripzioa

- Gerra aurretik, nik gerran euki nebazan beratzi urte, ta ordun, ba, ez euan eskolarik be ez. Ezer be ez euan.
- Ta gerra aurretik diñot, gerra aurretik?
- Gerra aurretik...
- Eskolara juten ziñian, ez?
- Eskolak [...].
- Hor ez zeuazan, ba, lehengo korreosen?
- Bai, hantxe euazan eskolak, ein zirin gero, gero. Baiña eskolak, gero etorri zirin eskolak, honek [...] zirinian. Maixu, maixu, danak zirin maixuk Valladolid [...], danak zirian. Ta gu euskaldunak, erdararik bat be ez. Ta lagun batek, Modesto, Modesto Robles, Robles ez, Moldesto...
- Bai, Robles.
- Robles ez zan. Modesto Meabe, Meabe. Modesto, ondiño bixi da. Ta guk eukitten genduan abadía, etorten zanian astin behiñ-edo, eskolatik, handik, on daona Atea, Atea ez, elixatea...
- Elixatea, bai.
- Konstruiduta daona, handik ikusten zirian elixako urtekeria. Ta astin behin etorten zan abade bat, ta erdera eitten eban harek, euskera barik, erdera. Ta etorri zan ta harek, Modestok: “señor maestro, viene, viene, viene la cura, la cura”, bam, “se dice el cura y tal”. “Se dice la cura”. Ikusi eban harek, espabillaua bera: “señor maestro, viene la cura” ta “¿cómo la cura? El cura se dice” ta plisti-plast emon.
- Txarto eittiaittik.
- Txarto esatiarren.
- Bai.

- "El cura" barik "la cura" esan ebalako.
- Ze, klaro, zuek han sasoien dana erderaz, ezta? Eskolan.
- E?
- Eskolan dana erderaz?
- Erdera eitten eban harek. Maixuk harek danak zirin erdaldunak. Ordun zan idea bat Francona, euskeria galtzia. Haxe zan basia.
- Baiña zuek euskeraz ingo zenduen halan ta be.
- Guk euskeraz, baiña han eskolan ezin eĩ euskeraz.
- Ta kastigurik-edo eukitzen zenduen?
- E?
- Kastiguek.
- Bai, bueno, hori belauniko-ta, liburuaaz-ta? Normal. Belauniko ta liburuak hamen ipinitta.
- Jarritta.
- Bai.

12. Mutilak pilotaka

- **Erref:** LEK-014/022
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:26:29. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskolan "sumar" ikasten zutela dio, "dividir" ez. Jolasaldian plazara joaten ziren eta mutilak kanpandorrearen eta bidearen artean pilotaka aritzen ziren. Pilotak artilezkoak izaten ziren. Neskekin ez zuten ezertan jolasten. Neskak mojekin zeuden.</p>

Transkripzioa

- Mutillak dibujorik-eta pentsa be ez. "Sumar" ta horixe, ta "restar", "restar". "Dividir" jakin be ez iñok be.
- Ya, ya. Ta libururik-edo bai, eukitzen zenduen edo entziklopedidiek?
- Liburuk [...], baiña eskolan hartzen zirin liburuak, eta etxin ez euan libururik.
- Ta errekreoan eta kanpuan kalien-eta olge be ingo zenduen.
- Bai, errekreun bai. Errekreun eitten gendun plazara, eta juten giñian ta pelotan eitten genduan kanpantorrian. Kanpantorria badao ba? ta orduan ez ebillen kotxerik bat be, ta pelotan eitten genduan hantxen, kanpantorrian ta kamiñuan... Hau kanpantorria ta...
- Ya, bidian. Bidian, kanposantura [...]
- Hau [...] kanpantorria... Kanpantorria dao kamiñuan, hor ezkiñan, ba, haxe frontixak [...] bi, birentzako zan. Fronto bi. Harexe.
- Ta esku pelotan eitten zenduen?
- Esku pelotan.
- Ta pelotia zelakua?
- Lanazkuak. Ordun pelotak geuk eitten genduzan laniaaz.
- Ta lanie nundik ataraten zenduen, ba?
- Ba... etxien manga zaharren bat-edo holakoren bat solta ta...
- Ta horretan mutillek bakarrik?
- Mutillek. Neskari ez. Neskak ez zirin... neskak, umik, andrakukin ta gauzakin.
- Ta alkarregaz olgeuko zenduen, ba?

- E?
- Alkarregaz olgeuko zenduen.
- Keba. Neskakin?
- Zeozetan, pelotan ez, baiña...
- Ezetan be ez.
- Ez?
- Dibision.
- Eskolan be batzuk toki baten ta bestik bestian?
- Bai.
- Prohibiduta eongo zan, ez?
- Ganera, han eskolan neskak monjakin egoten zirian.
- Ta zuek kanpotar maisuaaz?
- Kanpotar maisuak. Valladolid ta horrek... erdaldunok.
- Ta eurek maisuek nun bizi ziren?
- E?
- Maisuek nun bizi ziren, bertan eskolan?
- Ez, batzuk ez, bertan eskolan ez. Maixuen etxi euan han. Lau etxe-edo egon zien. Ta “maestro pequeño” bizi zan beste bat. Danak, etxe guztik [zeuan] maixuentzako, baiña baeuazen... eon zirin batzuk, etxik. Bueno, etxik edo... abitxaziño...
- Horixe, kuartuak eukiko ebezen.

13. Gerrako ezkutalekuak

- **Erref:** LEK-014/028
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:33:19. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerran, kanpaiak jotzerakoan, frontoian eta karabineroen etxean ezkutatzen ziren batzuk. Frontoian hondarrezko zakuak jartzen zituzten babesteko. Gipuzkoar asko egon ziren Lekeition, Mikel Laboa tartean.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, frontoian be bai, eta beste batzuk egon zirin hamen karabiñerun etxik eon zirinak hamen, zubi zuridxen onduan .
- Ta ze eitten zenduan sirenia hartun ta, hori entzun ta anaidxen billa ibili edo arin-aringa eskapa?
- Danok genkidxen nora jun bihar gendun ta kanpaiak joten ebezenian, danok eukaun, bata hara, bestia hona besti ha. Ta han gu frontoitik joten giñian [...] han danak “sacos de...” honek hondarren zakukin pillat bat. Baiña ez dakit orduan, iñoiz pentsau dot harek hutsik, han aguanta ta zelan ez giñin zapaldu danok. Harek hondarra, baiña ez euken kalkulorik iñok einda, bota ta bota tapateko, bota, bota, ta ba hainbeste, hainbeste killo han ganian. Ta iñoiz pentsau dot nik han: “Zelan salbau giñian gu handik?” Harek forjauk, harek forjauk-eta ez euan gaurko tekno teknikarik-eta. Forjaua behian, baiña zelako forjaua? Hondar zaku pillo bat ganian ia. Ta iñoiz pentsau dot: “Zelan hau ein dabenak?” Ze joten bada apurtxu bat forjaua, forjauak apurtzen diraz errez ganera ta zapaldu danak. Ta giputxa be eon zan hamen!
- Giputxa? Nungo giputxa?
- Gero hau be egon zan... Eskapata bai, Hau “el cantautor” edo zelan da

hau?

- Bai Mikel Laboa.
- Bai Mikel Laboa, hori Gardatan egon zan.

14. Ebakuatutako jende asko

- **Erref:** LEK-014/030
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:35:22. **Bukatu:** 00:37:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerran bapore asko bete ziren ebakuatutako jendearekin. Egoera tamalgarria zela dio: askok ez zekiten nora zihoazen ere, ume asko zeuden, jendea goseak zegoen... Soldadu italiarrak kontzejupean egoten ziren; harreman ona zuten beraiekin.</p>

Transkripzioa

- Ta jente askok Lekitxotik alde egin bihar ixen ban ezta?
- Alde? Ni akordaten jat urten giñen baporak. Urten, nonora urten baiña, baiña deskalabrua. Ta umik-eta [...] aitta etorri zan Gernikatik ta: “Geldi! Ez mobidu iñora, ez mobidu hamendik iñora!”. [...] ez genekiuen nora doian, “aquellos era...”. Gero holan baporak soiñu joten, bata saltatzen bestik. Bata Laredora bestik ez dai /eztai/ nora ta iñork be ez jakin nora, ta umetxuk-eta. “Aquellos fue un desastre” .
- Ta salbokontuktogaz-eta problemarik-eta egon zan?
- Guk ez gendun salbokonduturik.
- Eta baporitan jun zirinak-eta?
- Harek bez. Harek zirin hamar urtekuak eta bost urtekuak-eta. Batzuk jun zirian Bilbora, bestik Santoñara ta horixe, urten, urten nonora. Baia ia, jan barik eta gosiaaz-eta zer? Klaro, gosia eguan orduan handidxa, ez zeuan . Ze akordaten naz ni, honek italianuak etorri zirian, italianuak eon zirin hamen . Hamen eitten eben lo hamen, ayuntamientun behean, “cómo se llama” hori? Ayuntamientun azpidzan.
- Kontzidixopian.
- Kontzidixopian han egoten zirin eta han jaten genduan sardiñak. Sardiña latak pillo bat ta guri emoten gaittuen sardiña-latak eta guk erakusten eutsaun honek [Madalenako] honek babak, babie gordiñik jaten eben babak italianuk ta guri sardiña-latak emoten gaittuezen.
- Alaba: Ta zuek eurari babak?
- Erakutsi haidxe!
- A erakutsi. Baiña jan eitten ebezen horrek?
- Eurak, eurak bai.
- Zuek ekarri eurentzako ta sardiñak...
- Guk erutan genuzan haraxe solora.
- Nun euan? Nun euan? Ta laguntziarren solora ba emoten otsuen sardiña latia. Ez dao /ezto/ txarto!
- Orduan ondo konpontzen ziñien?
- Bai, bai, derrigor, gosik gosi espabillaue da.

15. Txapel gorria sutara

- **Erref:** LEK-014/032
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:37:51. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

<p>Frankistak "Sociedad recreativa"n egon ziren, eta erreketek batzokian. Erreketeek txapel gorria eman zieten; eta amumak, ikusterakoan, hartu eta sutara bota zion txapel gorria. Bere amuma gogorra zela dio.</p>

Transkripzioa

- Gu giñian frankistak ta erreketiak hamen: frankistak eon zirian "Sociedad Recreativa"n ta erreketiak batzokidzan. Ta elegantiao ta formaten giñian harekin egurrezko fusillakin eleantio [...] "eran los dirigentes" eta Kandido Fito ondarrutar bat be bai zan "los que manejaban la patrulla" ta emon eutsen txapel gorridxak.

- Reketiak

- Reketiak ta gu Santiñin jaten gendun orduan. Ez geunkaun guk Talan-eta ezin ama ta [...] egon zirian danak, ta han noia txapel barridxaaz, elegante neu, amumak agarraten nau ta gure amuma gogorra zan! Ta agarraten nau ta: "Ez zara lotsatuten aitta kartzelan ta honeaz?". Hartun ta sutara! Kauen, on zer ein bir dot nik? on zelan formako dot nik ba? Ta nik ikusi neban, guk eitten gendun lo hor...

- Alaba: Txokolate, bertan kantoian

- Bertan kantoian

- Alaba: Txokolateridxa euan aurrian nire aitzia bizi dan hor. Txaparronako aurrian Azpiri kalia.

- Ta txapel bat euan hainbeste urtetan ta eitten gendun lo hamen. Olatz dagon tokidzan.

- Alaba: Txokolateridxako aurrian.

- Ta nik ikusten neban hainbeste denporan egon zan hantxe txapela, [ustelduniko] txapel bat txapel gorri bat, baiña [...] handik ikusten genduan-ta. Ein neban [...] Hartun, horman gora idxon, txapela ipini eta presenta ein nintzan. Txapelak usaiña euki eban txapelak ba, hainbeste denporan han botata egonda. Baiña gure amuma joe! Bera gogorra zan, italianuari be "Señora" esaten dotsen italianuari: "¿Usted, nosotros damos plata y usted nos da papel?", "No no tener más, no tener más". Hori ba, ogerlekua zidarra harek, ta honek papela [...] eoten zirinak gerrako dirua.

16. Gerra hasierako oroitzapenak

- **Erref:** LEK-014/034
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:41:13. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Nazionalak sartu zirenekoa zelan gomutatzen duen kontatzen du. Etxe batzuk erre zituzten. Centro Republicano eta EAE-ANVren egoitzak edo batzeko tokiak egon ziren herrian.</p>

17. Aita kartzelan eta langile-batailoietan

- **Erref:** LEK-014/035
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:46:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Bere aita batzokiko atezaina zen. Atxilotu eta langile-batailoira eraman zuten: heriotza-zigorrra kondenatu zuten. Kapitainak indultua eman zion, antza, egunero elizara joaten zelako-edo. Bitarte horretan, etxean ez zuten aitaren berririk izan. Bueltatzerakoan, arotzerian jarraitu zuen lanean.</p>

Transkripzioa

- Aitxe kartzelan zer dala ta? Edo zelan harrabe ebien? Bueno zer dala ta imajinetan dot baiña...
- Porque gure aitxak dana euki eban. Batzokiko konserjia zan, "conserje de batzoki". Ta orduan euki eben danak ganera "pena de muerte"az euki eben. Ta gure aitxa beti elidxakua ixan dalez, ta beti elixara, ta ba deitxu eutsan kapitxanak-edo ta: "Hay una denuncia para usted, o lo que sea. ¿Usted que ha hecho?" "Nada, yo he sido conserje del tal, conserje de batzoki." Ta solta ebala ta : "¡A trabajadores!". Ta solta ebala: "¡A trabajadores!". [...] urte askuan
- Ta zer da hori, "trabajadores"?
- "Batallón de trabajadores".
- Ta nun egon zan? Nungo trabajadorietan?
- Bueno nun ixan zan, hortik, Katalunia bueltatik hor ziher.
- Beti be beste lekitxar batzukaz edo?
- Ez, trabajadores danak.
- Ta lekitxar gehidxo euazan beragaz? Ez dakixu...
- Bai, batzuk bai baiña, danetariku, danetarikuk. Trabajadoriak zirian "trabajadores" ba biharra ein bihar ebenak han, zubidxak apurtzen zirinian ba zubi barridxak ein-ta.
- Ta denpora askoan egon zan?
- Bai, ez dakitx urte bi edo ein babazan han kartzelan..
- Eta indultua zelan etorri jakon-edo ba? Ze "pena de muerte" euki baban?
- Ba gero ein eben. Iksui eban eta kendu eutsan.
- Alaba: Horretxek kapitanak edo horrek kendu eutsan?
- Bai.
- Alaba: Ezaguna zalako edo?
- Ba ikusi ebalako elixara juten zala egunero komulgaten-ta. Ta ba bera be kontixu izango zan.
- Ta zuk bitxartien aitxagaz hartu-emonik-edo?
- Bapez
- Bapez, karatik ta bapez?
- Alaba: Nun daonik bez.
- Bi [...] hortxen egon zan, baiña.
- Ta nork esan eutsun hor euala ba? A bueno gero berak, etorri zanian. Ta

halako baten agertu ein zan.

- Bai. Gero aamitxu zanian ba...

- Agertu zan eta gero zer ein eban? Arotzeridxa segidu eban?

- Ze eingo eban ba. Ez euan biharrik, ez euan on Lekitxon daon, bueno ontxe bajonazua dauko, baiña ordun [...] muellia arreglatia ta holakoxe zozer.

18. Gerraostea: gosea, errazionamendua, estraperloa

- **Erref:** LEK-014/037

- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:47:35. **Bukatu:** 00:49:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean, jendeak gosea pasatu zuen Lekeition. Baserritarrei sagarrak osten zizkieten. "Auxilio social"en, Marinan eta "Nautica"n ematen zuten errazionamendua. Estraperloa dirudunek kontrolatzen zutela dio, horretarako dirua behar zen-eta; harakinak-eta ibiltzen ziren estraperlista.</p>

Transkripzioa

- Ta hamen gerraostian Lekitxon gosia pasa eban jentia?

- Joder, gosia, gosia, ez euan ezebe ta ezebez. Sagar ta madari lapurretan ta sagar lapurretan hortxe, hortxe sagarretan, hortxe sagarrak ostu ta baserritxarrak ikaria eukitxen gaitxuen guri ba.

- Mendidxara ta lspaster ta.

- Bai.

- Bueno baiña ostutie behar danien jatekoa ostutie ez da pekatu.

- Ez da, baiña zuk badaukazu arbola bat ta ostuten baotsuen zeuri zeozer pekatua ez da, baiña [...] hori?

- Baina razonamentu eukiko zenduen ba?

- Ez guria emoten eben, auxilio sozalian ta hori emoten eben zelan da?, emoten eben, bai Marinan be bai ta, horrek, hamen bestian be bai, nautikan be bai, ta han eoten giñin plater aluminiozkukin bumba ta bum jo ta jo.

- Ta estraperlo kontua?

- Estraperlua batzuk, estraperlua eukitxeko handixa ixan bir zara ta dirua daukona, estraperlua, horrek behidxak ekarritxa ta erunda baina hori "ya los poderosos". Estraperlua, hamen ez do /ezto/ estraperlorik, ez euan dirurik hamen, bape!

- Baina jenti ibiliko zan halan be? Jentik ekarriko ebala estraperloan jeneroa?

- Bai, batzuk [...] hamar-edo, estraperlua eukitxeko erosi ein bir dozu /bizu/ ta ekarri ta. Bai, estraperlistak euazen orduan honek karnaxeru ta honek .

- Bai txarridxen estraperlua-ta eoten ei zien.

- Bai, bai

- Animalixena..

- Animalixak, bai.

19. Irina lortzeko zailtasunak

- **Erref:** LEK-014/041

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:52:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Errotak gerraostean zarratuta egon ziren. Markinan zegoen errota handi bat eta bertara joaten ziren; oinez joaten ziren eta telazko poltsa batzuetan ekartzen zuten irina. Oleta goian Guardia Zibilak egoten ziren, eta askotan kendu egiten zieten.</p>

Transkripzioa

- Ta errotak-eta? Zarratute egon zin, ezta? edo hamen parajien....
- Bai gero eurek zarratu ein ebezan /eibezan/, bai, eta gero Lekitxon Agortatik e... Markiñan euen errota handidxa.
- Baiña Lekitxon bertan ez?
- Errotarik ez hamen.
- Ez? Erreidxoren baten ezkiñan-edo?
- Lekitxon ez, joten giñin Oletara.
- Zer joten ziñien ba? Ze zuek astorik eta ez zenduen eukiko.
- Astuk geu.
- Alaba: Oiñez, no?
- Oiñez.
- Eta zelan ekarten zenuen urune ba? Zakuetan e...
- Zakuetan, boltsa batzuk .
- Lastozko boltsa...
- Telazko boltsa batzuk edo, baina kantidade gitxi emoten eben ta kilo bat eta kilo bat. Gero guardia zibilak eoten zirin hamen Oletako han goidxan eta igul kentzen eutsuen: "¿Qué llevas ahí? ¡Deja esto ahí!"

20. Alondegia

- **Erref:** LEK-014/042
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:52:16. **Bukatu:** 00:53:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Ardoaren zergak Alondegian ordaintzen ziren, "Txantxiku"k kontrolatzen zuen dena.</p>

Transkripzioa

- Hemen filatoa edo egon zan?
- Filatua edo hamen eon zan alondigan eon zan, filatua ez zan hori ta entradia ardauena-ta pasaten zan alondigan orduan, filato modura edo hantxe dao inpuestuak pagateko zeozer. Bai Eskolapian. Ta orduan ez zeuan ardaa ongo modura, baizik eta bakoitxak berena ekarten eban binoteru bakoitxak berena ekarten eben. Ta gero pasaten ebena Txantxibo

izengo zan, Txantxibo famosua, harek pasaten ebazan, haixe zan aiuntamientoko jefia. Inpuestuak bai.

21. Umiliatutako emakumeak

- **Erref:** LEK-014/044
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:56:24. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Andrazkoen kartzela Itsasalderen goiko partean zegoen, gizonena kontzejupean. Andrei ile labur-labur ebaki eta kalerik kale eramaten zituzten buruan espainiar bandera zutela.

22. Francoren eragina; salatariak

- **Erref:** LEK-014/046
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:58:14. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Francoren asmoa euskara zapaltzea zen. Bizkaiko ezkerraldera eta Barakaldo aldera milaka espainiar heldu ziren eta irakasleak ere handik zetozen. Lekeition bi gizon fusilatu zituzten. Herrian bertan ere bazeuden salatariak.</p>

Transkripzioa

- Euskeria eguan, honek maixuak [ekarten ebiezan] erdaldunak danak, ta euskera.... Francon taktikie zan apurtu Euskadi. Euskeria? Zapaldu, etorten zirian hona Sestaora ta Barakaldora ta, zemat milla lagun etorri ziren, altosornosek hamabost milla lagun euki ebezan ordun, danak zirin extremeñuak eta...
- Eta Lekitton politikiek inddar asko euki eban?
- Bueno Lekittok... PNVk eukan beti, betikuk ixandikuek ezta? Baiña gero danak galtzen jun zirin, ta hil ebezen bi, hil ebezen. Damason aitta, Damaso Leturian aitta, afusila ein eben eta beste bat, hojalatero bat, beste bat. Ta gero honek denuntzixak, Jose Pagua ta honek zirian denuntzixaten ebezenak danak,
- Txibatuak? Hori hamen eta edonun.
- Bai bai, danien.
- Aprobetxa batzuk.
- En general, hau , ofizixokuk normalian ofizixokuak, ni arotza banaz arotzari apunta!

23. Bizikleta luxua zen

- **Erref:** LEK-014/050
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:02:31. **Bukatu:** 01:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Bizikleta bakarra zuten neba-arreba guztientzako. Bizikleta zutelako aberatsak zirela uste omen zuten, oso bizikleta gutxi baitzeuden Lekeition. Aitak erabiltzen zuen beharrerako. Neba-arrebetan nagusia zenez, berak erabiltzen zuen gehien. Alokairuzko bizikletak ere bazeuden herrian. Lehenengo kotxea don Karlos Solanok ekarri zuela gogoratzen du.

Transkripzioa

- Zuek bixikletarik euki zenduen umetan?
- Guk bixikletia euki genduan bat danontzako eta guk gero bixikleta bat, pentsaten gendun bueno, aberatsao garila, bixikleta bateaz eta gu domeketan juten, bueno, juten giñian Ondarrura juten giñin, eta ni zaharro nintzalez hartzen neban bixikletia, eta Koldok: "Zeuk eruten dozu beti bixikletia". Ta aitzak erabiltzen eban ba biharrerako eta bixikleta bat ekarri eben, pentsa eben, bueno bixikletia orduan zan gauza bat zenbat bixikleta eon zirin Lekitxon? Aberatsenak.
- Alkillerreko bixikletak eon zien?
- Bai, eoten zan alkillerreko bixikletak eoten zian, honek han eoten zan Ramon. Ramon Arrindan aitzak eukitzen eban, zelaku izango da? Eruten eban eta zenbat ba? errial bat edo ez dait /eztai/ eukin. Ta [...] mariñeruk-eta hartzen eben bixikletia ta eitten eben [...] jo eta bertan itzi ta [...]
- Gero holan zuen inguruen nork ekarri eban lehenengo motorra edo lehenengo kotxie-edo?
- Lehenengo kotxia don Karlos Solanok, euren kotxia, Jose Mari Solanon aitzak.
- Alaba: kotxia! Eleantia ixango zan! Txofer ta guzti!
- Eta zer zan bera ba? Txoferra-edo?
- Hori zan "oriundo de vienen de" goitxik datozenak.
- Betiko famili aberatsa.
- Betiko famili, [...] de Ayarza hortik datoz, [...] de Ayarza...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com